

<p>Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025</p> <p style="text-align: center;">Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako</p>	<p>Prueba 2A, defensa de la programación didáctica / ámbito de FP</p> <p>2A proba, programazio didaktikoaren defentsa / LHko eremua</p>
<p style="text-align: center;">Resolución 249/2024, de 15 de noviembre / 249/2024 Ebazpena, azaroaren 15ekoa</p>	

0590 - SERVICIOS A LA COMUNIDAD / EUSKERA
---

0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / EUSKARA
---

Irakaskuntzarako gaitasun pedagogikoa eta teknikoak.
--

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
<b>Baldintzak - (Descuento / murrizketa)</b>	<b>5 ptos. / puntu</b>
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu</p> <p>Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafikoa, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoa ez den beste neurri bat erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu eginen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.</p>	Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
<b>ANTOLAKETA</b>	<b>2 ptos. / puntu</b>
<p>Programazioa erabil daiteken curriculumean sartzea, justifikatzea eta testuinguruan jartzea, VII. eranskinean ezarritakoaren arabera. Kontuan hartu beharko da programazioa 1. mailan edo 2. mailan kokatzen den.</p> <p>1.- Espezialitateko prestakuntza-zikloen erabil daiteken curriculumak, modulu bat edo batzuk irakasteko eskumena dutenak.</p> <p>2.- Izapidetzea, justifikatzea eta testuinguruan jartzea. Erabil daiteken Curriculumen ikaskuntza-helburuekiko eta -emaitzekiko lotura. • Espezialitatearekin zerikusia duen lanbide-gai edo -modulu bati erreferentzia egitea, edo, hala eskatzen duten metodologia-planteamenduak erabiliz gero, hainbat lanbide-irakasgairi edo -moduluri erreferentzia egitea, besteak beste, parte hartzen den espezialitateari dagokiona.</p>	1 pto. / puntu
<p>Programazioa osatzen duten elementuak, zatien koherentzia eta proposatzen den sekuentziazioaren logika ondo planteatuta daude.</p> <p>1.- Garatzeko funtsezko elementuen arteko lotura (titulua, lanbide-profila, testuingurua, gaitasunak, helburuak, ikaskuntzaren emaitzak, edukiak, metodologia, aniztasunarekiko arreta eta ebaluazioa)</p> <p>2.- Gaitasunak garatzeko edukiaren sekuentziazio zuzena.</p>	1 pto. / puntu

Eduki teknikoa	2 ptos. / puntu
Programazioak araudian ezarritako curriculumaren elementuak zehazten ditu, VII. eranskinean ezarritako baldintzetan, aipatutako hezkuntza-etaparen mailarekin bat etorritik. 1.- Erabil daitekeen curriculum, diseinatuta dagoen maila eta testuingurua (ikastetxea/taldea) zehaztea. 2.- Ikaskuntzaren emaitzen, helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen arteko lotura. 3.- Lanbide-profilarekin lotutako modulua. 4.- Ikasturte baten programazioa. 5.- Curriculum- eta ikastetxe-arloa (proiektu funtzionala, hezkuntza-proiektua): programazioaren oinarriak.	1 pto. / puntu
Programazioak honako hauek zehazten ditu: ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, ebaluazioarekin duten lotura, hezkuntza-mailari dagozkion konpetentziak eskuratzeko eta zikloaren konpetentzia orokorra, konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta konpetentzia-atalen konpetentziak eta, hala badagokio, lanbide-kualifikazioak eskuratzeko ekarpena. 1.- Ebaluazio-irizpideak, adierazleak eta prozesuak. Ebaluazioarekin duen lotura. 2.- Hezkuntza-mailari dagozkion gaitasunak eskuratzen laguntzea (edo zikloko konpetentzia orokorra, konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta konpetentzia-ataletakoak eskuratzen laguntzea).	1 pto. / puntu
Eduki Didaktikoa	4 ptos. / puntu
ikasmailarako metodologia, material eta baliabide didaktiko egokiak.	2 ptos. / puntu
Ebaluazioaren prozedurak, tresnak, instrumetoak eta bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitateko ebaluazio-araudiaren arabera.	1 pto. / puntu
Aniztasunari arreta emateko neurriak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako erantzunetan arreta berezia jarrita. Laguntzeko estrategia metodologikoak	1 pto. / puntu
Komunikazio gaitasuna	2 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adieraztea, hitz egiteko gaitasuna, komunikazio-testuinguruari egokitutako formaltasun-mailarekin.	1,5 ptos. / puntu
Epaimahai ebaluatzailearen galderei emandako erantzunen egokitasuna eta koherentzia.	0,5 ptos. / puntu
<p>Programazio plagiatuak aurkeztuz gero edo zenbait izangaik programazio didaktiko bera aurkeztuz gero, izangaia edo izangaia hautapen prozeduratik kanpo geldituko dira.</p> <p>Lanbide Heziketako irakaskuntzei buruzko programazio didaktikoa, ziklo jakin batzuen curriculumetan oinarrituko da. Izan ere, helburu duen espezialitateak irakaslana izan behar du ziklo horien moduluetan. Horrela ez bada, programazio didaktikoari emaniko kalifikazioa 0 puntukoa izango da..</p>	